

BALIO PROPOSAMENA

Gure aplikazioak **festak, kontzertuak eta jaialdiak maite** dituzten pertsonen behar nagusi bati erantzuten dio: **informazioa garaiz eta leku bakarrean** edukitzeari. Gaur egun, ekitaldien berri askotan berandu izaten dugu, informazioa sakabanatuta dagoelako sare sozialetan, kartel fisikoetan edo ahoz aho. Horrek, askotan, plan onak galtzea edo sarrerak agortuta aurkitzea eragiten du. Gure aplikazioak arazo horri **irtenbide** zuzena ematen dio.

Aplikazioak erabiltzailearen kokapena erabiliz bere gertatzen diren festa, kontzertu, jaialdi eta bestelako guztiak **modu antolatuan** erakusten ditu. Erabiltzaileak hedadura ere aukeratu dezake (bere herria, eskualdea probintzia), eta horri esker **informazioa zehatza eta** bihurtzen da. Helburua da erabiltzaileak ezagutzea **ekitaldi guztiak** lehenbailehen, ezer ez galtzeko eta

aisialdia modu eraginkorrangoan planifikatzeko. Gainera, erabilpena errazteko, **chat** bat inplementatuko dugu, jendearen komunikazioa errazteko. Honek estaldura erraztua izango du, hau da, festetan sortutako jendearen aglomerazioa sortutako estaldura eza ekiditzeko sistema sinplea erabiliko dugu, chat-a 3g-ra arte erabili ahal izateko.



inguruan
ekitaldi
eremuaren
edo
erabilgarria
gertuko
bere

Bestalde, gure aplikazioaren puntu bereizgarririk handiena da **sarreraren erosketarako eta salmentarako atala** integratuta duela. Plataforma honek **segurtasuna, fidagarritasuna eta prezio justuak** bermatzen ditu, bigarren eskuko sarreraren iruzurrak edo gehiegizko prezioak saihestuz. Erabiltzaileak aplikazio berean aurkitzen du informazioa eta erosketaren prozesu osoa, esperientzia osoagoa, azkarragoa eta erosoagoa eskainiz.

Horri esker, gure aplikazioak erabiltzaileari **denbora** aurrezten dio, **informazio fidagarri eta eguneratua** eskaintzen du, eta gainera aisialdiaren kudeaketa errazten du: **planak aurkitu, antolatu eta sarrerak lortu**, guztia klik gutxitan.

Azken finean, gure balioa da festak eta ekitaldiak maite dituzten pertsonen informazioa, erosketak eta segurtasuna eskaintzea, dena plataforma bakarrean eta erabiltzailearen beharretara egokituta